

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5483

AGINDUA, 2014ko abenduaren 17koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko Renove Programaren 2015eko deialdia arautzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko.

Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak (EHAA, 249. zk., 2012-12-31koa; eta hutsen zuzenketa, EHAA, 69. zk., 2003-04-07koa), ondare hori birgaitzeko jarduketan araubide juridikoa arautzen du, etxebizitzaren sektorea sustatu eta bultzatzeko. Dekretu hori garatzeko eman zen 2007ko maiatzaren 2ko Agindua, birgaitze integratuko areetan edo bizitegi-area degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko diru-laguntzak ematea arautzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoa jasaten ari den krisi ekonomiko-finantzarioak, etxebizitzaren sektoreari bereziki erasaten dionak, agerian utzi du arlo horretako politikak berregokitzeko beharra.

Gure hiriei erreparatuz gero aurkitzen dugun errealitatea da hiria osatzen duten higiezinak gabezia nabarmenak dituztela, eta horrek agerian uzten du, neurri handi batean, bertan bizi diren hainbat hiritarren egoera hauskorra.

Aurre egin beharreko arriskueta bat da hirian bazterkeria-eremuak sortzea, biztanleriaren sektore batzuentzat baliabideak eskurazinak direlako ez ezik, eraikinak dauden egoeran daudelako, bizigarritasunari, irisgarritasunari eta energia-efizientziari dagokienez.

Bestalde, beharrezkoa da ekonomia suspertzeko eta higiezinaren eta eraikuntzaren sektorea birmoldatzeko bideak zabaltzea, eta, era berean, eredu jasangarri eta integratzaile bat bermatzea. Horretarako, funtsezko jarduketa-ildo bat da hiria birgaitzea, leheneratzea eta eraberritzea.

Hiria eraberritzeko jarduketek etxebizitzaren aurrezte eta efizientzia energetikoan zuzeneko eragina dute, eta, gainera, oinarritutako dira karbono-emisio baxuetan oinarritutako ekonomia bat ezartzeko ahaleginean, Europar Batasunaren helburuekin eta aurreikuspen eta politikekin bat etorritik. Ekonomia berri horrek familiaren eta herrialde osoaren energia-faktura murrizten lagunduko du, eta baita berotegi-efektuko gas-emisioak murrizten ere.

Etxebizitza Birgaitzeko Renove Programaren asmo nagusia gaurko egoera zailari aurre egitea da. Horretarako, lehentasunezko eta ezinbestean erantzun beharrezkoak jotzen diren helburuak mugatu ditu eta sektore pribatua sustatu du, jasangarritasunean eta lehiakortasunean oinarrituta eta irtenbide eta laguntza-ildo berritzaileak landuta etxebizitzaren sektorea indarberritu dezan, hirigintzan birgaitzea, leheneratzea eta eraberritzea bultzatuz.

Halaber, Ikuskaritza Teknikoko Txostena ezarri eta orokortu nahi da; besteak beste, irisgarritasunaren, energia-efizientziaren, segurtasunaren eta kontserbazio-egoeraren analisisia jasoko da txosten horretan.

Horretan guztian laguntzeko, diru-laguntzei buruzko Agindu hau landu da; hain zuzen ere, agindua zuzenduta dago erabilera nagusia etxebizitzarena duten, bloke exentzuak edo etxadiak osatuz taldekatuta dauden –eta gutxienez albo batean etxebizitzak dauden–, 1980a baino lehenagoko eraikitze-data duten eta jada hirigintzara moldatuta dauden eta egitura egokia duten hirigintza- eta

egitura-egokitzapena duten eraikinen gainean jarduteko proposamenak aurkezten dituzten Jabe-kideen Erkidego, Udal, Tokiko Erakunde Txiki, Etxebizitza Sozietate Publiko eta Etxebizitzen Sustatzaile Publikoei.

Diru-laguntzei buruzko agindu hori gastu-espeditenteak aurretiaz izapidetzeko erregimenaren mende egongo da.

Diru-laguntzen atalean zehaztuta daude obra-proiektuen idazketari eta obra horiek gauzatzeari dagozkien ehunekoak, eta diru-laguntzarako gehieneko muga bat ezarri da, eragiketa honen arabera kalkulatua: esku-hartze proiektuaren eremuan dauden etxebizitzaren kopurua bider 15.000 euro.

Proposamenak hautatzeko lehentasun-hurrenkera ere zehazten da; hurrenkera horretan, ingurutzatzailearen, irisgarritasunaren eta suteen aurkako segurtasunaren gaineko baterako jarduketak izango du lehentasuna, etxebizitzaren jabeen artean ahalik eta adostasun handiena lortuz, hitzartutako laguntzen eraginkortasuna bermatze aldera. Hautaketan hainbat proposamenen artean berdintasuna gertatuz gero, jarduketarekin onura lortuko duten etxebizitzaren kopuruari erreparatuko zaio auzia ebazteko. Atal horretan ere berdintasuna badago, jarduketaren xede diren errentamendu babestuko etxebizitzaren kopuruari erreparatuko zaio.

Abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, lehenengo xedapen gehigarrian Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua ahalduntzen du agindu bidez birgaitze-programa espezifikoak ezar ditzan, esku-hartze jakin batzuen ezaugarri bereziengatik edo aparteko eta ezusteko gorabeherak direla medio beharrezkotzat jotzen bada.

Hori guztia aintzat hartuta, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, ematen didan aginpidea erabiliz, eta bat etorri azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, VI. tituluaren eta VII. tituluko II. eta III. kapituluaren ezarritakoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren mendeko laguntzei eta diru-laguntzei aplikagarriak zaizkien gainerako xedapenekin,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da hiri-lurzoruan etxebizitzak birgaitzeko Renove Programaren diru-laguntzei buruzko 2015eko deialdia arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoko ondare eraikian esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko.

2.– Esku-hartze proiektu horietan proposatutako jardueren xedea izango da erabilera nagusia etxebizitzarena duten zenbait familiako eraikin edo eraikin-multzoetan –bloke edo etxaldeetan bilduta, gutxienez horien albo batean etxebizitzak badaude– esku hartzea, eraikin horiek 1980a baino lehen eraikitakoak badira eta jada hirigintzara moldatuta badaude eta egitura egokia badute, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera.

3.– Eraikitako ondarean esku-hartzeko laguntza-programa honetara bildutako proiektuak eraikinen irisgarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak hobetzeko eta energia-efizientzia hobetzeko izango dira, jasagarritasun-irizpideei jarraituz eta hurrengo artikuluetan adierazitako betekizunak betez.

4.– Diru-laguntzarik ez dute jasoko bizilagunik gabeko eraikinetan, aurri-egoeran daudela deklaraturakoetan edo aurri-egoeran egon litezkeenetan egiten diren jarduketek.

5.– Diru-laguntzarik ez dute jasoko jada hasita dauden eta lizentzia emana duten obrek, egitura sendotzeko obrek, fatxaden konponketek, urbanizazioetan irisgarritasuna hobetzeko lanek eta etxebizitza-kopurua areagotzeko eraikinen birgaitze integralkak.

2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Laguntza-programa honetaz baliatu ahal izateko, jarraian zerrendatzen diren jarduketak bilduko dituzten esku-hartze proposamenak planteatu beharko dira, Agindu honetan zehazten diren baldintzak betez:

a) Eraikinaren energia-portaera hobetzea: eraberritzearen ondoren, gutxienez C energia-ziurtagiria lortu beharko da, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak, eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarriko prozedura onartzen duenak, zehaztutako prozeduraren arabera. Tankera honetako jarduketak egin beharko dira:

- Jarduketa pasiboak eraikinen ingurutzailan, berokuntzarako urteko energia-eskaria gutxienez % 30 murriztuz, hornitutako energia alferrik galtzea eragoztearren.

- Eraikineko sistema eta instalazioen errendimendua eta eraginkortasuna hobetzeko jarduketa aktiboak, energia-instalazio komunak eta eguzki-kolektoreak edo energia berriztagarriko bestelako iturriak zentralizatzeko edo horietaz hornitzeko instalazioak ezarriz, betiere horiei esker eraikinaren energia primarioaren urteko kontsumoa gutxienez % 30 murrizten bada, kontsumo apalagoaz konfort-maila berberari eutsiz.

b) Eraikinen irisgarritasuna hobetzea, bide publikotik etxebizitza bakoitzera sarbidea izango dela bermatuz, koskadun desnibelak saihesten ibili beharrik gabe.

c) Segurtasun-baldintzak hobetzea: suteen aurka, suteak detektatzeko, alarma jotzeko eta itzaltzeko ekipamendu eta instalazio orokor egokiak izan beharko ditu eraikinak edo eraikin-multzoak; horrez gain, larrialdiko argiztapena izan beharko du, eraikina hustu behar izanez gero argiztapena bermatzeko eta irteerako seinaleak eta dauden babes-ekipamendu eta -baliabideak ikusi ahal izateko.

d) Eraikitako perimetroa handitzeko jarduketak, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzkoak, IV. eranskinean ezarritakoarekin bat etorritz.

e) Energia-monitorizazioa. Birgaitutako eraikinaren energia-efizientiaren hobekuntza egiaztatzeko eta kuantifikatzeko, ezinbestean egin beharko dira barneko konfort termikoa eta berokuntzaren energia-kontsumoa neurtzeko jarduketak, birgaitutako eraikinean edo blokean dauden etxebizitzetan lagin esanguratsu bat erabiliz. Horri dagokionez, monitorizatuko diren etxebizitzak Etxebizitza Zuzendaritzaren irizpideei jarraiki zehaztuko dira, eraikuntza-tipologiaren, kokapen eta orientazioaren, berokuntza-sistemen eta behar besteko esangura duen lagin bat ateratzen laguntzeko beste edozein irizpideren arabera. 20 etxebizitza edo gutxiagoko eskaeretan, gutxienez etxebizitzaren % 20 monitorizatuko dira, eta etxebizitza gehiagoko eskaeretan, berriz, gutxienez % 15; kopurua eskaeran jaso beharko da. Esku-hartzean proposatutako monitorizazio-instalazioak Agindu honen III. eranskinean zehaztutako ezaugarriak izan beharko ditu.

2.– Aurreko ataletan aipatutako jarduketek interes kultureko higieizinei edo beste edozein babes-erregimen dutenei eragiten badie, irtenbide berritzaileak bilatuko dira, energia-efizientzia hobetzeko eta irisgarritasuna bermatzeko egokitzapenak eginez, baina, aldi berean, balio babes-tuak zainduz. Edonola ere, jarduketa horiek aplikagarria den babes-erregimena kudeatzeko eskumena duen organoaren aldeko txostena edo baimena beharko dute, dagokion organoaren araudiaren arabera.

3.– Higiezinaren egungo egoera dela-eta beharrezkoa ez bada deskribatutako esparruren batean jardutea, hain zuzen ere azaldutako baldintzak bermatuta daudelako, ez da beharrezkoa izango puntu horretan jarduketak adieraztea, baina aurkeztutako dokumentazioan justifikatu beharko da hori.

4.– Aurrez deskribatutako esparruetan jarduketaren bat egitea ezinezkoa gertatzen bada, aurkeztutako dokumentazioan zehatz-mehatz justifikatu beharko da hori.

3. artikulua.– Laguntzen onuradunak.

1.– Laguntza hauen onuradun izango dira planteatutako esku-hartze proposamenen esparruko Jabekideen Erkidegoak, betiere diru-laguntzaren xede diren jarduketak egiten badituzte.

Horrez gain, laguntzen onuradunak izan ahalko dira Udalak, Tokiko Erakunde Txikiak, Etxebizitza Sozietate Publikoak eta Etxebizitzen Sustatzaile Publikoak, betiere jarduketan esparruan dauden eta xedea errentamendua duten eraikuntzen jabeak badira, osoki zein partzialki.

2.– Onuradunei diru-laguntzak eta laguntzak emateko eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetze-prozesuan dagoen edozein itzulketak edo zigor-prozedura amaitzea.

3.– Ezingo dute laguntza-deialdi honetan parte hartu zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zehatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoek, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debeku baten eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoari jarraituz.

4. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Laguntzen eskaerak 1. artikuluan adierazitako multzoak osatzen dituzten Jabekideen Erkidegoen ordezkariak aurkeztu beharko dituzte, Jabetza Horizontalari buruzko Legean ezarritakoaren arabera. Hala ere, III. eranskinarekin bat etorriz, hirugarren bati ere eman ahal izango zaio eskaerak aurkezteko baimena, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Udalen, Tokiko Erakunde Txikien, Etxebizitza Sozietate Publikoen eta Etxebizitzen Sustatzaile Publikoen kasuan, eskaera horien legezko ordezkariak egin beharko du.

2.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Laguntzak jasotzeko eskaera, I. eranskinean jasotako formatuaren arabera formalizatua.

b) Jabekideen Erkidegoen IFKren fotokopia konpultsatua.

c) Eskatzailearen NANaren edo IFKren fotokopia.

d) Legezko ordezkariak egiaztatzen duen tituluaren kopia.

e) Higiezinaren jabetza-tituluaren edo erregistroko ohar soilaren fotokopia.

f) Erkidegoetako kide guztien erroldatzeko udal-ziurtagiria.

g) Proposamenaren edukia, honako hauek jasoko dituen:

– Proposamenaren memoria deskriptibo-justifikaziozkoa eta ekonomikoa, Agindu honen 2. artikuluan jasotako puntuei espresuki erantzungo diena; jarduketek erasandako eraikinen argazkiak ere aurkeztuko dira.

- Esparruaren kokapen-planoa.
- Eskatutako esku-hartzeen jarduketa-programa.
- Esku-hartzearen xede diren eraikinen ikuskapen teknikoak, azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuak (EHAA, 241. zk., 2012-12-14koa), Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duenak, 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Jabekideen Batzarrean onartutako akordioaren ziurtagiria, Agindu honen II. eranskinari jarraituz (esku-hartze proposamenean parte hartzen duen erkidego bakoitzeko bana). Akordioaren ziurtagiria aurreko letran aipatutako esku-hartze proposamenari buruzkoa izango da, eta obraren norainokoa eta onartutako zenbatekoa jasoko ditu.

i) Proposamenaren energia-efizientziako ziurtagiria, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak, eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

j) Esku-hartzearen egokitasuna egiaztatzen duen udal-txostena, IV. eranskinari jarraituz.

k) Errentamendu babestuko kontratuak.

l) Laguntzak ematen dituen organoak beharrezko iritzitako beste edozein dokumentazio osagarri.

3.– Epea.

Eskaerak hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Etxebizitza Zuzendaritza ohartzen bada aurkeztutako eskaeran akatsen bat dagoela edo zerbait gaizki adierazita dagoela, edo aurkeztu beharreko dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari jakinarazi eta 10 eguneko epea emango dio arazoa konpontzeko edo falta dena aurkezteko. Halaber, adieraziko dio hori egin ezean eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta horri buruzko ebazpena emango du, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.– Aurkezteko lekua.

Eskaerak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren edota Lurralde Ordezkaritzen Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edota azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan ezarritako moduetakoren batean.

5. artikulua.– Diru-laguntzetarako aurrez ezarritako kreditua eta zenbatekoa.

1.– Aurrez ezarritako kreditua.

Laguntza horiek emateko 5.500.000 euro bideratuko dira guztira, eta honela banakatuko dira:

2015. urtea: 100.000 euro / 2016. urtea: 1.800.000 euro / 2017. urtea: 1.800.000 euro / 2018. urtea: 1.800.000 euro.

Programa hau Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatzen du. Horrenbestez, laguntzen programa honetan sartzen diren esku-hartze proiektuak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 zenbakidun Araudian (EB) ezarritakoaren eraginpean egongo dira. EGEFek jarriko duen zenbatekoa Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zenbatekoaren % 50 izango da.

2.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1) Txostenak, ziurtagiriak eta proiektuak idazteko.

Dokumentuak idazteko ordainsarietarako aurkeztutako aurrekontuaren % 70 emango da (zergak salbu).

2) Obrak gauzatzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketan kontratarako aurkeztutako aurrekontuaren % 50 emango da (zergak salbu). Birgaitze integratuko areetan edo bizitegi-area degradatuetan egingo diren jarduketetarako, zenbatekoa izango da diruz lagundutako jarduketetarako kontrataren aurrekontuaren % 60 (zergak salbu).

Adierazitako ehunekoaren baturaren gehieneko muga bat ezarri da, eragiketa honen arabera kalkulatua: esku-hartze proiektuaren aplikazio-eremuan dauden etxebizitzien kopurua bider 15.000 euro. Birgaitze integratuko areetan edo bizitegi-area degradatuetan egingo diren jarduketetarako, zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da: esku-hartze proiektuaren aplikazio-eremuan dauden etxebizitzien kopurua bider 18.000 euro.

6. artikulua.– Esleitzeko prozedura.

Diru-laguntzak lehiaketa bidez esleitzeko dira, aurrekontu-kreditua agortu arte, eta hurrenkera honen arabera:

1.– Onartutako proposamenak ordenatuko dira jarraian zerrendatutako diru-laguntzetarako jarduketak gehien biltzen duten esku-hartzeen arabera:

Energia-portaera hobetzea: inguratzailearen gaineko jarduketa pasiboa lehenetsiz (a), igogailuak jartzea lehenetsiz igogailurik gabeko blokeetan, gainerakoen aurretik (b), eta suteen aurkako segurtasuna hobetuz (c). Hori horrela izanik, lehenik eta behin, hiru jarduketa horiek barnean hartzen dituztenak hautatuko dira; multzo horren barruan, onartutako proposamenak ordenatuko dira esparruko jabekideen artean lortutako adostasun-ehunekoaren eta horiek ordezkatzeko dituzten partaidetza-kuoten arabera. Beraz, lehenik eta behin jabekideen % 100en adostasuna eta % 100eko partaidetza-kuota duten proposamenak hautatuko dira, eta horrela jarraituko da modu korrelatiboan, beheranzko hurrenkera. Lehentasuna emango zaio partaidetza-kuoten ehunekoari, jabekideen ehunekoaren aurretik.

2.– Jabekideen arteko adostasun-ehuneko bera duten proposamenak badaude, hautaketan lehentasuna emango zaie etxebizitza-unitate gehienei onura ekarriko dien proposamenei.

3.– Loturaren, adostasunaren, partaidetzaren eta etxebizitza-unitateen kopuruaren parametrotan berdindutako proposamenak aurkeztuz gero, errentamendu babestuko etxebizitza-kopuru handienari eragiten dioten jarduketak hautatuko dira.

Hainbat blokez osatutako jabekideen erkidegoen multzoak egonez gero, diru-laguntza lortu ahal izango da, soilik, adostasunak bloke guztien gaineko jarduketa legez lotesten badu; hala ez bada, blokeak banan-banan aztertuko dira, eta ez guztiak multzo gisa.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten proposamenen hautaketa amaitu ondoren, saldoan soberakinik geratzen bada, azaldutako prozedura erabiliko da inguratzailea (a) eta irisgarritasunaren hobekuntza (b) xede duten proposamenekin, eta lehentasuna emango zaio igogailuen instalazioari, eta, aurreko kasuan bezala, onartutako proposamenak ordenatuko dira esparruko jabekideen artean lortutako adostasun-ehunekoaren arabera eta horiek ordezkatzeko dituzten par-

taidetza-kuoten arabera. Beraz, lehenik eta behin jabekideen % 100en adostasuna eta % 100eko partaidetza-kuota duten proposamenak hautatuko dira, eta horrela jarraituko da modu korrelatiboan, beheranzko hurrenkeran. Lehentasuna emango zaio partaidetza-kuoten ehunekoari, jabekideen ehunekoaren aurretik.

Jabekideen arteko adostasun-ehuneko bera duten proposamenak badaude, hautaketan lehentasuna emango zaie etxebizitza-unitate gehienei onura ekarriko dien proposamenei. Loturaren, adostasunaren, partaidetzaren eta etxebizitza-unitateen kopuruaren parametroetan berdindutako proposamenak aurkeztuz gero, errentamendu babestuko etxebizitza-kopuru handienari eragiten dioten jarduketak hautatuko dira.

Jabekideen kopuruari edo partaidetza-kuotei dagokienez lortutako adostasuna indarrean dagoen Jabetza Horizontalari buruzko Legean ezarritakoa baino txikiagoa bada, proposamena ez da inola ere onartuko, betiere horren eraginez jarduketa bideraezina bada.

Proiektuei eman beharreko zenbatekoak esleituko dira hautaketa-fasearen ondorioz ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera, eta 5. artikulua kasu bakoitzean ahalbidetzen duen gehieneko kopurua emango da, deialdiaren diru-hornidura agortu arte.

7. artikulua.– Eskaerak kudeatzea eta baloratzea.

1.– Etxebizitzako zuzendariari dagokio Agindu honetan aurrez ezarritako diru-laguntzen kudeaketa egitea.

2.– Aurkeztutako eskaerak esleipenerako irizpideen arabera baloratzeko, Balioespen Batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua: Etxebizitzako zuzendariak, lehendakari gisa, eta Etxebizitza Zuzendaritzako bi teknikarik.

3.– Balorazio-prozesuan zehar, Batzordeak aukera izango du interesdunei edukia garatu ahal izateko egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatzeko.

4.– Batzordeak ebazpen-proposamena helaraziko dio Etxebizitza Sailburuordetzari. Proposamen horretan onuradunen zerrenda jasoko da lehentasun-hurrenkeraren arabera, eta laguntzaren xede diren jarduketak eta proposatutako diru-laguntzen zenbatekoak adieraziko dira, eta, hala badagokio, baita ezetsiak izateko proposatu diren eskaeren zerrenda ere, eskaerak ezesteko arrazoiekin batera.

8. artikulua.– Ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Deialdi honetan aurkeztutako eskaerak prozedura bakarrean izapidetuko dira. Etxebizitzako sailburuordeari dagokio interesdunek planteatutako gai guztien gainean ebaztea, Balioespen Batzordearen proposamenei jarraituz.

2.– Hartzen den erabakiaren mende egongo da eskatutako diru-laguntzak ematea edo ukatzea. Emanez gero, datu hauek jasoko dira ebazpenetan: erakunde onuradunen izena, diruz lagundutako inbertsio edo gastuaren zenbatekoa, IFK edo NANA, diru-laguntzaren zenbatekoa –diruz lagundutako jarduketetan banakatua eta laguntzaren zenbatekoa urterokotan banatua– eta jarduketak gauzatzeko epea. Ezetsitako diru-laguntzen kasuan, datu hauek jasoko dira: eskatzaileen izena edo izen soziala, IFK edo NANA eta diru-laguntza ukatzeko arrazoiak.

3.– Aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta haren aurka gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Enplegu eta Gizarte Politike-tako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren egunaren biharamunetik kontatzen hasita,

azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei. Dena den, haren ezagutza orokorra bermatzearren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da entitate onuradunen zerrenda, bakoitzari eman zaion diru-laguntza eta diruz lagundutako inbertsio-proiektua adieraziz.

5.– Prozedura ebazteko eta ebazpenak interesdunei jakinarazteko gehieneko epea sei hila-betekoa izango da, deialdi-agindua argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita. Adierazitako epea igarota ebazpenaren jakinarazpena egin ez bada, egindako eskaera ezetsizat hartuko da eta horrela ulertu beharko dute interesdunek, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

6.– Diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen duten egunetik hasita hamabost eguneko epean onuradunek ez badiote espresuki eta idatziz uko egiten diru-laguntzari, diru-laguntza onartua izan dela ulertuko da.

7.– Diru-laguntzak emateak ezinbestean ekarriko du, ondorio guztietarako, obra birgaitze-jarduketa babestu gisa deklaratzea, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak ezarritakoaren arabera.

8.– Onuradunei diru-laguntzak eta laguntzak emateko eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetze-prozesuan dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzea.

9. artikulua.– Jarduketan denbora-eremua.

1.– Onuraduna kontratu publikoen araudiaren eraginpeko erakunde publikoren bat bada, laguntzaren xede diren jarduketek esku-hartze proiektua kontratatuta edo kontratazio-espeditentia hasita eduki beharko dute hilabeteko epean, laguntzen behin-behineko ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita.

2.– Laguntzaren xede diren jarduketak 2015eko ekitaldian hasi beharko dira eta 2018ko uztailaren 31 baino lehen amaituta egon beharko dute, eta obren onarpen-aktaren edota obra-amaieraren ziurtagiri ofizialaren bitartez ziurtatu beharko da hori.

3.– Diruz lagundutako jarduketa egiteko eta amaitzeko epeari dagokionez, eta erakunde onuradunarekin zerikusirik ez duten eta behar bezala justifikatzen diren arrazoiak tarteko, erakunde horrek epea luzatzea eskatu ahal izango du, ezarritako gauzatze-epea iraungi aurretik. Epea ez da luzatuko onuradunak justifikatutako atzerapen-denbora baino gehiago, eta ezta 2018ko abenduaren 31tik aurrera ere. Luzapena Etxebizitzako sailburuaren ebazpen baten bidez onartu beharko da, Etxebizitza Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren.

10. artikulua.– Ordainketa.

1.– Deialdi honen babespean emandako diru-laguntza zatika ordainduko da, modu honetara:

a) Zenbateko osoaren % 10 ordainduko da diruz lagundutako birgaitze esku-hartzea amaitu izana dokumentu bidez ziurtatu ondoren. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko da: Obra Amaierako Likidazioa, Obra Zuzendaritzak sinatua, ordainketaren egiaztagiria eta obraren amaierako egoera erakusten duten argazkiak, Obra Amaierako Ziurtagiria eta, azkenik, gauzatu-tako obran Agindu honetako betekizunak bete direla egiaztatzen duen txosten teknikoa.

b) Gainerakoa Etxebizitza Zuzendaritzak Obra Proiektua onartu ondoren ordainduko da, emandako ebazpenari jarraiki eta udal-zerbitzuek Obren Udal Lizentzia esleitu eta gero, zatikako ordainketen bidez. Horretarako, egindako gastua egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da: txosten, ziurtagiri eta proiektuei dagokienez, zerbitzu profesionalen ordainsari teknikoen fakturak, eta, obrak gauzatzeari dagokionez, Obra Zuzendaritzak sinatutako ziurtagiriak, ordainketaren egiaztatzea eta ziurtagiria egiteko unean obraren amaierako egoera erakusten duten argazkiak.

Ordainketaren zenbatekoa kalkulu honen arabera izango da: justifikatutako gastuari (zergak salbu) emandako diru-laguntzaren ehunekoak aplikatuko zaio laguntza emateko kalkulaturako aurrekontuarekiko, eta ehunekoari hamar puntu kenduko zaizkio.

Ekitaldi batean inola ere ezingo da ordaindu esleipen-ebazpenak urteroko horretarako ezartzen duena baino zenbateko handiagoa.

2.– Egindako gastuak egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

– Txosten, ziurtagiri eta proiektuei dagokienez, behar diren obra-proiektuak idazteko zerbitzu profesionalen ordainsari teknikoen fakturak eta ordainketa-egiaztatzeak.

– Obrak gauzatzeari dagokionez, Obra Zuzendaritzak sinatutako ziurtagiriak, ordainketaren egiaztatzea eta ziurtagiria egiteko unean obraren amaierako egoera erakusten duten argazkiak.

– Diru-laguntzaren likidaziorako, Obra Amaierako Likidazioa, Obra Zuzendaritzak sinatua, ordainketaren egiaztatzea eta obraren amaierako egoera erakusten duten argazkiak, Obra Amaierako Ziurtagiria eta, azkenik, gauzaturako obran Agindu honetako betekizunak bete direla egiaztatzen duen txosten teknikoa.

– Programaren eraginkortasuna baloratu ahal izateko, Obra Amaierako Likidazioarekin batera Segurtasun eta Osasun Koordinatzailearen Ziurtagiria bidaliko da, jarduera bakoitzean aritu den langile-kopurua egiaztatuko duena.

11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Onuradunek ezinbestean bete beharko dituzte Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikulua zehaztutako legezko betebeharrak, eta, zehazki, honakoak:

a) Etxebizitzako zuzendariari jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk xede berbererako emandako beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortu izana, eta diru-laguntza edo laguntza hori eman duen erakundea eta zenbatekoa. Horrez gain, diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein zirkunstantzia objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinarazi beharko dio aipaturako organo horri.

b) Etxebizitza Zuzendaritzari jakinaraztea txostenak, ziurtagiriak eta proiektua idazteko zerbitzuen kontratazioa, eta, behin dokumentua idatzita dagoela, Zuzendaritza horretan ale bat aurkeztea, dokumentuaren jarraipena egin eta hura onartu ahal izateko, Agindu honen helburuekin bat datorrela egiaztatze aldera. Proiektua onartzea beharrezkoa eta ezinbestekoa da obrak lizitatu ahal izateko. Adierazitako onarpena ezinbesteko baldintza izango da, obraren lizitazioa egin eta gero.

c) Etxebizitza Zuzendaritzako teknikariei obretarako sarbidea ematea, obraren jarraipena eta horien azken egiaztatzea egin ahal izan ditzaten.

d) Erkidegorako aseguru bat eratzea, eraikina edo eraikin-multzora ere (edukitzailea) hedatua, eraikuntza nagusia eta instalazio finkoak barnean hartuko dituen, aseguruaren gutxieneko zenbatekoa eraikinak obren ostean duen balio eguneratua izanik eta epea, berriz, hiru urtekoa.

2.– Onuradunak ezinbestean eman beharko du Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, diru-laguntzaren xedea zaintzeko dituzten eginkizunak betez, eskatzen dioten informazio oro.

3.– Onuradunak ezinbestean bete beharko du kontrolari, erantzukizunari, zigor-erregimenari eta ez-betetzeari buruzko komunitatearen legedia. Laguntzak onartzeak berekin ekarriko du, halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 zenbakidun Araudiak (EB) 115. artikulua 2. atalean jasotako eragiketen zerrenda publikoan sartua izatea onartzea. Orobat aintzat hartu behar da EGEFen kofinantzaketa dela eta nahitaezkoa izango dela gauzatzen diren ekintzei buruzko finantzaketari, administrazioari eta jarraipenari buruzko informazioa artxibatuta edukitzea 3 urte igaro arte, eragiketaren gastuak sartuta dauden kontuak aurkeztu eta hurrengo abenduaren 31n kontatzen hasita. Testuinguru horretan, onuradunaren betebeharra da, era berean, informazio hori erraz eskuratzeko moduan egotea (kontabilitate-sistema berezia edo kodeketa espezifiko).

12. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek nahiz beste erakunde publiko edo pribatu batzuek ematen dituzten eta helburu berekoak diren edota xede berbera edo osagarria duten bestelakoekin, salbu eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jabekideen erkidegoei eman diezaieketenekin. Hala ere, bateragarriak izango dira diru-sarreraren arabera eskubideen titularrei indibidualki emandako laguntzekin, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2006ko abenduaren 26ko Aginduak, etxebizitzak birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorriz.

2.– Xede berarekin laguntza bat baino gehiago jasoz gero, laguntza guztien zenbatekoak ezingo du gaudituko diruz lagundutako jarduketan kostua. Kasu horretan, lehenik eta behin Agindu honen ondorio gisa emandako laguntza murriztuko da, laguntzaren muga hori ez gainditzeko.

13. artikulua.– Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntzak emateko orduan kontuan hartu ziren baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, edota beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuen batek emandako laguntza edo diru-laguntzaren bat jasoz gero, edo helburu bererako beste diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere arau honetan laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Horretarako, Etxebizitzako sailburuordeak aldaketa egiteko ebazpena emango du, eta bertan, hala badagokio, emandako diru-laguntzen zenbatekoak doitu egingo dira.

14. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Diru-laguntza ematea eragin zuten baldintzetako edozein ez dela bete egiaztatzen bada, diru-laguntza galduko da, eta jasotako zenbatekoak eta legez dagozkien interesak itzuli beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian, dagozkion prozedura-izapideak bideratu ondoren, arau hauetan ezarritakoaren arabera: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartua, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen.

15. artikulua.– Publizitatea eta zabalkundea.

1.– Agindu honen babespean diruz lagundutako obrek Eusko Jaurlaritzaren finantzaketa dutela adierazi beharko da.

2.– Obrak egiten diren eraikinetan fisikoki adieraziko da hori kartelen bidez; diru-laguntza-
ren behin betiko ebazpenarekin batera jakinaraziko den ereduaren arabera iragarkia txertatu
beharko da kartel horietan.

3.– Orobat, jarduketa beste bitarteko batzuen bidez zabaltzen edo hedatzen bada, Eusko Jaur-
laritzaren kofinantzaketa adieraziko da horietan ere.

4.– Artikulu honen xedeetarako, aplikagarria izango da abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak,
Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duenak, ezarritakoa.

5.– Diruz lagundutako obretan jakitera eman beharko da Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF
programa eragileak kofinantzatuak direla, 1303/2013 zenbakidun Araudiak (EB) 115. artikulua
3. ataleko XII. eranskinean jasotakoaren arabera. 500.000 euro-tik gorako laguntzak dituzten jar-
duketetarako, obra egiten ari den bitartean aldi baterako kartel bat jarriko da, eta, hura amaitzean,
plaka edo kartel bat. Batzordeak «gauzatze-egintza» bat ezarriko du gainerako jarduketetarako,
eta bertan zehaztuko da zer neurri hartu beharko diren proiektuen kofinantzaketaren inguruan
informazioa emateko eta hori jakinarazteko. Diruz lagundutako obrei buruzko informazio- eta
komunikazio-jardueretan, EGEFen bidez helarazitako komunitatearen kofinantzaketaren berri
emango da zabalkunde hori egiteko erabiltzen diren material/euskarri guztietan, eta Batasuna-
ren ikurra txertatu eta Europar Batasunaren aipamena egingo da; bestalde, proiektua gauzatu
bitartean haren deskripzio laburra emango da dagokion webgunean, Europar Batasunaren babes
ekonomikoa nabarmenduz, eta gutxienez kartel bat jarriko da –A3 neurrikoa, gutxienez– Batasu-
naren laguntza finantzarioa aipatuz, jendeak ongi ikusteko moduko leku batean.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduak, Euskal Auto-
nomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espeditentziaz aurretiaz
izapidetzea arautzeari buruzkoak, 5.3 artikuluan adierazitako xedeetarako, Agindu honetako
laguntzak ebazteko, aurrez kreditu nahikoa eta egokia egon behar da 2015. urterako Euskal Auto-
nomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta interesdunek aukerako berraz-
tertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, edo
administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko
Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren
Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera
izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 17a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.

2014ko abenduaren 26a, ostirala

I. ERANSKINA

1.-	ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
Erakunde eskatzailea	IFK	
Legezko ordezkaria	NAN	
Helbidea	Posta-kodea	
Udalerria	Probintzia	
Helbide elektronikoa	Telefono-zenbakia	

2.-	ERAIKINAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
Erkidegoaren izena	IFK	
Udalerria	Probintzia	Posta-kodea
Erkidegoaren izena	IFK	
Udalerria	Probintzia	Posta-kodea

3.-	ESKAERA-ADIERAZPENA													
<p>Erantsitako proposamenean bildutako obrak eta jarduketak egiteko laguntzak ESKATZEN DITU, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren Aginduaren arabera. Agindu horrek etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntza-programa arautzen du (Renove programa, Birgaitzea), Euskal Autonomia Erkidegoan eraikita dagoen ondarean esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko.</p> <p>ADIERAZTEN DU eskaera egindako egunean, eta laguntza eskatu den proposamenari dagokionez:</p> <p><input type="checkbox"/> Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan ez duela dokumentu eta/edo proiektu horietarako laguntza-eskaerarik aurkeztu eta/edo laguntzarik jaso.</p> <p><input type="checkbox"/> Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan laguntza-eskaerarik aurkeztu duela eta/edo laguntza jaso duela dokumentu eta/edo proiektu horietarako; beste erakunde batzuei egindako laguntza-eskaeren edo, halakorik bada, jasotako laguntzen ziurtagiria eransten du, zenbatekoak ere emanez.</p>														
<table border="1"> <thead> <tr> <th>Eskaeraren data</th> <th>Erakundea</th> <th>Laguntzaren norainokoa</th> <th>Eskatutako zenbatekoa</th> <th>Emandako laguntza</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> </td> <td> </td> <td> </td> <td> </td> <td> </td> </tr> </tbody> </table>					Eskaeraren data	Erakundea	Laguntzaren norainokoa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako laguntza					
Eskaeraren data	Erakundea	Laguntzaren norainokoa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako laguntza										
<p><input type="checkbox"/> Laguntzak eskatu dituen erakundea ez dela zigortua izan zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntzak lortzeko aukera galtzearekin eta ez dagoela horretarako ezgaitzen duen legezko debeku baten eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoak, azken xedapenen arteko seigarrenean ezarritakoari jarraiki.</p> <p><input type="checkbox"/> Erakunde eskatzaileak adierazten du betetzen dituela laguntza horien onuradun izateko indarrean dagoen araudian exijitzen diren betekizunak.</p> <p>.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n</p> <p>Sin. Baimendutako ordezkaria</p>														
SARRERA-ERREGISTROA		SARRERA-DATA		ESPEDIENTE-ZENBAKIA										

4.-	ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
<p><input type="checkbox"/> Jabekideen Erkidego, Udalen, Tokiko Erakunde Txikien, Etxebizitza Sozietate Publikoen eta Etxebizitzen Sustatzaile Publikoen IFKren fotokopia.</p> <p><input type="checkbox"/> Legezko ordezkariaren NANA edo IFK, eta legezko ordezkariaren egiaztatzen duen tituluaren kopia.</p> <p><input type="checkbox"/> Higiezinaren jabetza-tituluaren edo erregistroko ohar soilaren fotokopia.</p> <p><input type="checkbox"/> Erkidegoetako kide guztien erroldatzeko udal-ziurtagiria.</p> <p><input type="checkbox"/> Jabekideen Batzarrean onartutako akordioaren ziurtagiria, Agindu honen II. eranskinari jarraituz.</p> <p><input type="checkbox"/> Proposamenaren edukia, honako hauek jasoko dituen:</p> <ul style="list-style-type: none">– Proposamenaren memoria deskriptibo-justifikaziozkoa eta ekonomikoa, Agindu honen 2. artikuluan xehatutako puntuei espresuki erantzunak ematea; jarduketek erasandako eraikinen argazkiak ere aurkeztuko dira.– Esparruaren kokapen-planoa.– Eskatutako esku-hartzeen jarduketa-programa.– Esku-hartzearen xede diren eraikinen ikuskapen teknikoak, maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera. <p><input type="checkbox"/> Esku-hartzearen egokitasuna egiaztatzen duen udal-txostena, IV. eranskinari jarraituz.</p> <p><input type="checkbox"/> Proposamenaren energia-efizientziako ziurtagiria, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.</p> <p><input type="checkbox"/> Laguntzak ematen dituen organoak beharrezko irizitako beste edozein dokumentazio osagarri.</p>	

5.-	OHARRAK
<p><input type="checkbox"/> Orrialde honetan zehazten da zer dokumentazio aurkeztu behar den.</p> <p><input type="checkbox"/> Eskaera honen 2. atalean zehaztuko dira laguntza-deialdian batera parte hartzen duten jabekideen erkidego guztiak.</p> <p><input type="checkbox"/> II. eranskina: Jabekideen batzarren onarpen-akordioaren aktaren erudia. Ale bat emango da programa honen esparruan laguntza-eskaera sinatzen duten jabekideen erkidego bakoitzeko.</p>	

II. ERANSKINA

JABEKIDEEN BATZARRAREN ONARPEN-AKORDIOAREN ZIURTAGIRIA

Nik,.....jaunak/andreak
 , Jabekideen Erkidegoko izanik,
 (helbide soziala: kalea:, zk.:, udalerrria:
 eta IFK:), honako hau

ZIURTATZEN DUT:

Erkidegoaren Akta Liburuaren ... folioan honako hau jasotzen dela:

« (e)n, (e)ko aren (e)(a)n

Bertaratuak

.....jauna/andrea Solairua: Kuota: % ...

Ordezkarriak:

.....jauna/andrea Solairua: Kuota: % ...

Bertaratu gabekak

.....jauna/andrea Solairua: Kuota: % ...

Presidenteak xede horrekin behar bezala deituta Ezohiko Batzarrean bildurik lehenengo deialdian (edo, lehen deialdira hura baliozkoa izateko behar adina pertsona bertaratu ez zenez, ordu erdi beranduago egin zen batzarra, deialdian jaso zen bezala) jauna/andrea izan zen presidentea, lokalaren jabea, eta bertan zirelarik marjinan zerrendatutako jabekideak, kuoten % ordezkatzeko dutenak, bilerari hasiera eman zitzaion:

Lehenik eta behin, zor guztien ordainketa egunean ez edukitzeagatik botoa eman ezin zuten jabekideen izen-abizenak eta partaidetza-kuotak jakinarazi ziren. Deialdian alde zuzenetik horren berri eman zitzaion, eta pertsona horiek honakoak izan ziren:

..... jauna/andrea Solairua: Kuota: %...

Ordaindu gabeko zorra:..... € (akatsik edo ahaztutakorik izan ezean).

Ondoren, deialdiaren gai-zerrendako puntuak jorratu ziren, eta horiek azaldu, eztabaidatu eta bozkatu ondoren, honako erabaki hauek hartu ziren:

Lehenengo.– Batzarrari aurkeztutako esku-hartze proposamenean bildutako birgaitze-obra egitea adostu zen. Proposamena NAN zenbakia duen teknikariak egin zuen.

Esku-hartzea birgaitze-obra hauek egitean datza: Halaber, esku-hartze hori bideragarri egingo duten dokumentu teknikoak aurkeztu behar dira. Obrek jarduketa hauek barnean hartzen dituzte:

Esku-hartzearen zenbatekoa, obren kontrata-aurrekontua eta dokumentuak idazteko teknikarien ordainsariak barne, € da (zergak salbu).

Bigarren.– Laguntzak eskuratzeko eskaera izapidetzea erabakitzen da, Aginduaren babespean. Agindu horren bidez, etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko laguntza-programa bat (Renove Programa) arautzen da, eta Erkidego hau izango da laguntza horren onuraduna, laguntzei buruzko agindu horren ondoriozko betebeharrak betetz.

2014ko abenduaren 26a, ostirala

Hirugarren.– Erabakitzen da jaunari/andreari, NAN zenbakia duena, baimena ematea laguntza horiek eskuratzeko eskaera aurkez dezan aginduan zehaztutako organoetan, Jabekideen Erkidego honen ordezkari gisa.

Laugarren.– Lehenengo puntuan adierazitako obrak gauzatzea adostu denez, Gobernu Batzarrari ahalmena ematen zaio dagozkion derramak igor ditzan, pisu edo lokal bakoitzaren partaidetza-ehunekoen arabera, xede horretarako emandako diru-laguntzen zenbatekoak kendu ostean.

Bosgarren.– Galde-eskeak.

Sin. Idazkaria /Administratzailea

Sin. Presidentea

Sin. Bertaratuak»

Eta jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, Presidentearen oniritziarekin ematen dut agiri hau.

« (e)n, (e)ko aren (e)(a)n

Sin. Idazkaria /Administratzailea

Sin. Presidentea

III. ERANSKINA

MONITORIZAZIO-SISTEMA

Hartutako neurrien funtzionamendua eta eraginkortasuna egiaztatzeko sistemen monitorizazioa, kontsumoari eta ingurumen-baldintzei buruzko datuen teleirakurketa, bilketa eta ustiaketa ahalbidetzen duen sistema bat erabiliz, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak urrutitik egina. Monitorizazio-sistemak gutxieneko prestazio hauek izan beharko ditu:

- Erabilitako monitorizazio-sistemak gai izan behar du jarraian eta hamar minutuko tarteetan monitorizatzeko barruko giro-tenperaturaren, barruko hezetasun erlatiboaren eta berokuntzarako energia-kontsumoaren balioak. Temperatura, hezetasuna eta berokuntzarako energia-kontsumoa etxebizitza bakoitzaren arabera diskretizatuko dira. Nahikoa da temperatura eta hezetasun erlatiboa noizean behin neurtzea etxebizitzaren barruko baldintzak hobekien adierazten dituen gelan.
- Erabilitako sentsoreek hari gabeko transmisio-sistema izan beharko dute, jartzeko obra handirik behar ez duen sistema; eta berezko energia-elikadura izanez gero, elikadura hori behar adinakoa izango da monitorizazio-kanpaina osoan ibiltzeko.
- Konexio-sistemak sendoa izan behar du, eta korrante elektrikoaren horniduran izan daitezkeen gorabeheren aurrean babesteko sistemaren bat izan behar du. Erregistroa eteten bada, sistemak modu autonomoan jarri behar du martxan berriro.
- Aldagaien neurri-ziurgabetasunak balio hauek baino txikiagoak izango dira: $\pm 0,5$ °C temperaturari dagokionez; $\% \pm 5$ hezetasun erlatiboari dagokionez; $\% \pm 5$ berokuntzarako energia-kontsumoaren neurriari dagokionez.
- Monitorizazio-sareak behar diren baliabideak izango ditu lortutako datuak, aurretik definitutako formatu batean, horretarako erreserbatutako zerbitzari nagusira helarazi ahal izateko.
- Tresneriaren instalatzaileak behar diren neurriak hartu beharko ditu neurtzeko ekipamenduak muntatzeko eta ekipamendu horiek funtzionatzeko egindako jardunak eraikinaren segurtasunerako edo eraikin horietako bizilagunen osasunerako arriskutsuak izango ez direla bermatzeko.

IV. ERANSKINA

ESKU-HARTZEAREN EGOKITASUNARI BURUZKO UDAL-TXOSTENA

1.-	ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
Erakunde eskatzailea		IFK
Legezko ordezkaria		NAN
Helbidea		Posta-kodea
Udalerria		Probintzia
Helbide elektronikoa		Telefono-zenbakia

2.-	PROPOSAMENAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
Obren deskripzioa		Aurrekontua
Kokagunea		Posta-kodea
Udalerria		Probintzia
Proposamena idatzi duen teknikaria		

Aurkeztutako birgaitze-lanak ikuskatu ondoren, ZIURTATZEN DA:

BAI EZ

- Dagokion proposameneko eraikina edo eraikin-multzoa 1980a baino lehen eraiki zela, eta egitura egokia duela, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera.

BAI EZ

- Dagokion proposameneko eraikina edo eraikin-multzoa ez dagoela kalifikatuta hiri-antolamenduz kanpoko gisa eta hirigintzara moldatuta dagoela, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren arabera.

BAI EZ

- Proposamenean jasota dagoela igogailu bat jartzea, lurzoru publikoa hartuz.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, esku-hartzearen egokitasunari buruzko aldeko txostena aurkezten da, aplikagarria den hirigintzako araudiarekin eta udalerrri honetako plangintza-aurreikuspenekin bat etorritz.

Udal-teknikariaren sinadura